

Euskal AEko zerbitzuen sektorearen salmenta- indizea %1,8 gehitu zen 2014ko bigarren hiruhilekoan


Merkataritza %2,8 gehitu zen eta beste zerbitzuak %0,3

Eustatek emandako datuen arabera, 2014ko bigarren hiruhilekoan, Euskal AEko zerbitzuen sektoreko salmenta-indizea %1,8 gehitu zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,2 nominala gehitu da, urtaro-eraginak kenduta.

Merkataritzaren salmenta-indizea %2,8 nominala gehitu da; indizearen parte diren beste zerbitzuetan %0,3 gehitu da 2013ko aldi beraren aldean.

Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiuntura-indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Uneko prezioak



Merkataritzaren barruan deigarriak dira Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketaren igoera nominala, %5,5, eta Handizkako merkataritzarena, %4,7. Txikizkakoan gehikuntza apalagoa da, %0,9.

Beste zerbitzuetako sektoreen artean gehikuntzak daude Garraio eta biltegiatzean, %7,5, eta Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan, %2,1. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan, %7,8ko jaitsiera; Informazio eta komunikazioetan, %3,6, Ostalaritzan %1,4.

Gipuzkoan %+2,6; Bizkaian %+1,8; Araban %-0,2.

Termino errealetan, prezioen eragina kenduta, zerbitzuen sektorearen salmentak %1,4 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan

2013ko hiruhileko beraren aldean eta prezio finkoetan, Merkataritzaren salmenta-indizea %3,1 gehitu da, eta beste zerbitzuenean %1,0 jaitsi.

Merkataritzan urte artekoa positiboa izan da sektore guztietan: Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketa %5,0, Handizkako merkataritzaren salmenta-indizea %5,6 eta Txikizkakoarena %0,4, dena termino errealetan.

1. taula. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). II/2014

| | UNEKO PREZIOAK | | PREZIO FINKOAK | |
|---|----------------|-------------|----------------|-------------|
| | t / t-4 | t / t-1 | t / t-4 | t / t-1 |
| INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera | | | | |
| Euskal AE | 1,8 | 0,2 | 1,4 | 0,4 |
| Araba | -0,2 | -1,5 | -0,6 | -1,9 |
| Bizkaia | 1,8 | 1,1 | 1,6 | 1,3 |
| Gipuzkoa | 2,6 | -0,7 | 2,1 | 0,1 |
| INDIZE OROKORRA sektorearen arabera | | | | |
| Merkataritza | 2,8 | 0,4 | 3,1 | 0,7 |
| Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa | 5,5 | -0,2 | 5,0 | -0,9 |
| Handizkako merkataritza | 4,7 | 2,4 | 5,6 | 2,5 |
| Txikizkako merkataritza | 0,9 | 0,9 | 0,4 | 0,8 |
| Bestelako zerbitzuak | 0,3 | -0,3 | -1,0 | -1,5 |
| Garraioa eta biltegiatzea | 7,5 | 1,0 | 5,4 | 0,8 |
| Ostalaritza | -1,4 | -0,7 | -3,5 | -2,3 |
| Informazioa eta komunikazioak | -3,6 | -0,4 | -2,6 | -1,0 |
| Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak | -7,8 | -3,2 | -7,8 | -3,3 |
| Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak | 2,1 | 1,8 | 0,7 | 1,2 |
| ENPLEGU INDIZEA | | | | |
| Euskal AE | -1,8 | -0,1 | | |

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

Iturria: Eustat. Euskal AEko zerbitzuen gaineko koiantura-indizea (ZKI)

Beste zerbitzuetan, euro finkoetan: Garraio eta biltegiatzearen salmenta-indizea %5,4 gehitu da; Jarduera administratibo eta zerbitzu lagungarrietan, %0,7. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan %7,8ko jaitsiera; Ostalaritzan %3,5ekoa, Informazio eta komunikazioetan %2,6koa.

Euskal AE osoan, 2014ko lehen hiruhilekoaren aldean, zerbitzuen sektorean landunen kopurua %0,1 gutxitu da 2014ko bigarren hiruhilekoan.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Prensa-oharrak Interneten

Euskal AEko Zerbitzuen Koiunturako Indizea (ZKI). Datu-bankua